



2024SPLE0012
12.bilera: OHIKOA 2024/11/28

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/12

EGUNA: 2024/11/28

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:20

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra. (Telematikoki)

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue. (Telematikoki)

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagokion akta onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2024ko urriaren 30ean eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, inork ez zuen ezer adierazi, eta Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuraren bileraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Itziar Irizarrek adierazi zuen bazituela hainbat galdera:

- 520/2024 Dekretua «Esleitzea fitxaje sistemaren kontratua. DORLET SYSTEMS SLU.» Galdetu zuen ea denborak zeintzuk ote diren eta noizko espero den martxan jartzea.

Jon Riañok erantzun zion eskainitako pantailen stock falta dagoela eta, gehiegi ez atzerako, enpresa esleipendunak beste pantailak jartzeko proposamena aurkeztu zuela, eta informatikariak aztertzen ari zela proposatutako pantaila horiek Udalaren beharrak betetzeko egokiak ote diren. Hala izanez gero, eskaera konfirmatuko zaiela, eta instalazioarekin hasiko direla. Horretarako astebete edo 10 eguneko epea aurreikusten dela, eta hortik aurrera barne araudia tramitatu beharko dela fitxaketa sistema behin betiko ezartzeko. Idazkaritzako teknikariarekin hitz egindakoaren arabera, 2025eko martxoaren edo apirilera izan daitekeela behin betiko ezartze hori.

- 544/2024 Dekretua «Alkatearen eskumenak eskuordetzea.» Ea zein izan den eskuordetze horren arrazoia galdetu zuen.

Alkateak erantzun zion Euskal Fondoaren zuzendaritzako kidea dela eta abenduaren 1etik 8ra Guatemalara doala Euskal Fondoarekin, bertan garatzen ari diren kooperazio proiektu batzuk bistatzera Horiek horrela, egun horietan Jon Riañok hartuko dituela Alkatetzaren ardura.

- 547/2024 Dekretua «Hasiera ematea ondare-erreklamazioaren espedienteari, eta errekerimendua egitea eskaerako akatsak zuzentzeko.» Erreklamazioa nondik ote datorren galdetu zuen.

Alkatean erantzun zion erorketa batengatik eginiko indemnizazio eskaera bat zela.

Idazkariak azaldu zuen eskaeran bakarrik adierazten zela mendi bide batean eroriko bat izan omen zela, eta, horren ondorioz, kalte ordaina eskatzen zutela. Eskaerak ondare-erreklamazioek bete behar dituzten baldintzak betetzen ez zituenez (hala nola, ustezko erorikoaren eta Administrazioaren arteko kausalitatea, ustezko kaltearen ebaluazio ekonomikoa, eta abar) errekerimendua egin zitzaiola eskaera hobetu edo zuzendu zezan.

Antxoka Elorzak adierazi zuen bileraren hasieran ez zela aipatu Gilen Garcia eta Aritz Larrañaga telematikoki ari zirela, eta komenigarria litzatekeela aktan hori jasotzea, eta alkateak oniritzia eman zion azaldutakoari.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.



2024SPLE0012
12.bilera: OHIKOA 2024/11/28

3.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027.

Herritartasun Batzordeak, urriaren 22an eginiko bileran, aho batez, aldeko irizpena eman zion planari eta galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira.

Alkateak gaiari buruzko azalpenak eman zituen, nabarmenduz, hauek direla planaren erronka nagusiak:

- Kudeaketari dagokionez:
 - Udalaren kudeaketa orokorrean txertatutako kudeaketa-egitura egokia antolatzea.
 - Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei jarraipen sistematikoa egitea.
 - Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
 - Arduradun politikoen eta langileen lidergoa sustatzea.
- Erabilerari dagokionez:
 - Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
 - Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza.

Plana Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara igorri zela beraiek on iritzia eman ziezaioten, eta ez ziotela inolako arazorik aurkitu, eta horrez, gain, eskerrak eman zizkiotela Debako Udalari egindako lanagatik.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik, eta bozketa egin ondoren, Udalbatzak aho batez, onartu zuen Debako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027.

4.- Onartzea, hala badagokio, abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian «ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISOA, OLATU BERRIA SORTZEKO» adierazpen instituzionala.

Alkateak azaldu zuen UEMATik igorritako adierazpena zela, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira idatzitakoa, eta jarraian, adierazpena irakurri zuen:

«Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela entzuten hasiak garela. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko Iñaki Lurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta guneak ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula.

Euskara bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digitalizazioak, besteak beste, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak. Dugun

errealitatea, euskararen egiturazko arazoei heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehiago; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatiboz bizi daitekeen guneeetan. Gainera, gunehorietan ahultzen ari zaizkigu. Horrenbestez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi nahi dugu.

Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu.

Horri guztiari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian.

Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnaguneek eta udalerrri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guztiek behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak, hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gunehorietan euskaldunek arduratu behar dute jauzi berri hori irudikatzeko eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoia indartzeko.

Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan bagara, aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izango dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da Udala ere.»

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak aho batez, onartu zuen «ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISOA, OLATU BERRIA SORTZEKO» adierazpen instituzionala.

5.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik.

5.1 Itziar Irizarrek adierazi zuen, azken osoko bilkuran, eskari eta galderak puntuari sortu zen egoeraren harira, EH Bildu taldeko kideek pare bat gauza aipatu nahi zituztela: batetik, Debako udal gobernuaren egiteko modua ez zaiela txukuna iruditzen, aurrez prestatutako egoera bat sortu zelako; izan ere, Gizarte Politikako batzordeburuak aukera izan zuela aurreko hilabeteetan Arbil elkarteko kideak Batzordera gonbidatzeko, eta Batzordean bertan bai jubilatuen tabernari buruz hitz egiteko, bai tabernaren prezioei buruz hitz egiteko, eta, bide batez, Batzordean bertan Udalbatza osatzen duten hiru alderdiekin partekatzeko, baina Batzordera prezioen proposamen itxia eraman zuela, eta prezioen igoeraren, edo bi prezio ezberdin ez ezartzearen arrazoiak zeintzuk ziren galdetu zitzaionean, ez zituen azaldu nahi izan. Horren harira, gogoratu nahi zutela, batetik, batzordeak informatiboak direla, eta oposizioko alderdiek era informazioa eskatzeko eta jasotzeko eskubidea dutela; eta bestetik, plenoan horrelako egoera sorrarazi eta gero, alkatearen kudeaketa desegokia izan zela iruditzen zaiela. Herritarrei eta eragileei hitza ematea egokia eta beharrezkoa iruditzen bazaie ere, baina horrelako egoerak hobeto kudeatu behar direla. Horrela eskatzen dutela ahaleginak egitea horrelako egoerak ez sorteko, eta prozeduraren aldetik, batzordeetan batzordeen gaiak lantzea, eta plenoan plenokoak.



2024SPLE0012
12.bilera: OHIKOA 2024/11/28

Alkateak erantzun zion erabat ados dagoela azaldutakoarekin, berarentzat ere oso egoera deserosoa izan zela. Euren ez zutela horren berririk, eta ez zela izan euren aurretik antolatutako zerbait izan. Bazekitela Gizarte Politikako batzordeburuak hitza eskatuko zuela, baina, herritarrek hitza eskatuko zutenik ez zekitela.

Hitza eskatu zutenean, idazkariari galdetu ziola ea hitz ematerik ba ote zuen, eta alkatearen eskumena zela erantzun zionean, hitza eman ziola. Dena den, horrelako egoerak ekiditeko, herritarren parte hartzea nola kudeatu denon artean landu daitekeela dagokion batzordean, eta adibidez, herritarrek ezingo dutela hitza hartu alde aurretik adierazten ez badute erabakiz. Baina, argi geratzea nahiko zuela, euren horren berririk ez zutela, eta, gainera, esandakoarekin ez daudela ados.

Bilera amaitu aurretik, Alkateak gogorarazi zuen hurrengo osoko bilkuraren ohiko bilera, Gabonak direla-eta, abenduaren 19an izango dela.

Bestetik ez zegoenez, 19:20tan alkateak amaitutzat eman zuen Osoko Bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

